ESLEIPENA, Arantzazuko Ama ospitalerako eskularruak eta behin bakarrik erabiltzeko materiala eskuratzeko lehiaketa publikoarena. (Prozedura irekia; espedientea: 110/20/1/00448/2302/1096-T.A.) 11524

ESLEIPENA, Arantzazuko Ama ospitalerako material suntsigarria eskuratzeko lehiaketa publikoarena. (prozedura irekiaz; espedientea: 110/20/1/00422/2302/1096-T.A.). 11525

ESLEIPENA, Arantzazuko Ama ospitaleko biltegi orokorreko zerbitzurako poltsak, hodiak eta xiringak eskuratzeko lehiaketa publikoarena. (prozedura irekiaz; espedientea: 110/20/1/00451/2302/1096-T.A.). 11526

**LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA**

ERABAKIA, 1997ko ekainaren 18koa, Lurraldearen Antolamendurako zuzendariarena, «EAEko lurzoruaren herri ondareari buruzko arauen azterlan juridikoa» burutzeko lehiaketarako dela egiten duena. 11528

**GERNIKA-LUMOKO UDALA**

LEHIAKETA PUBLIKOA, polikiroldegitarako pabilioiko obrak adjudikatzeari buruzkoa. (2. ekitaldia). 11529

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

**AGURAINGO UDALA**

IRAGARPENA, Aguraingo Udaleko lan-legepeko langile finkoak funtzionario bilakatzeari buruzkoa. 11531

# Xedapen Orokorrak

**ARARTEKOA**

**Zk-3509**

Arartekoaren Antolaketa eta Funtzionamendurako ARAUDIA.

Arartekoaren lana pertsonentzat egina da. Horregatik, araudian bildutako arauen helburua erakundea behar bezala antolatzea eta funtzionaraztea da, herritarrek bertan zerbitzu atsegina, ona eta bizkorra aurki dezaten.

ADJUDICACIÓN concurso público por procedimiento abierto para guantes y material desechable para el Hospital de Aranzazu, expediente n.º 110/20/1/00448/2302/1096-T.A. 11524

ADJUDICACIÓN del concurso público por procedimiento abierto de material fungible para el Hospital de Arantzazu (expediente n.º 110/20/1/00422/2302/1096-T.A.). 11525

ADJUDICACIÓN del concurso público por procedimiento abierto de bolsas tubos y jeringas para el Servicio de Almacén General del Hospital de Arantzazu (expediente n.º 110/20/1/00451/2302/1096-T.A.). 11526

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE**

RESOLUCIÓN de 18 de junio de 1997, del Director de Ordenación del Territorio, por la que se acuerda convocar Concurso por el Procedimiento Restringido para los trabajos de «Estudio Jurídico sobre la Regulación de los Patrimonios Públicos de Suelo de la C.A.P.V.». 11528

**AYUNTAMIENTO DE GERNIKA-LUMO**

CONCURSO PÚBLICO para la adjudicación de las obras de Pabellón Polideportivo (2.ª fase). 11529

## Otros Anuncios Oficiales

**AYUNTAMIENTO DE SALVATIERRA**

ANUNCIO referente a la funcionarización del personal laboral fijo del Ayuntamiento de Salvatierra. 11531

# Disposiciones Generales

**ARARTEKO**

**N°-3509**

REGLAMENTO de Organización y Funcionamiento del Ararteko.

Los destinatarios de la actividad del Ararteko son las personas. Por ello, la normativa contenida en el reglamento pretende organizar y hacer funcionar la institución de tal modo que los ciudadanos encuentren en ella un servicio amable, eficaz y rápido.

Zortzi urte igaro dira Arartekoak bere lana hasi zuenetik, eta sei lehen araudia argitaratu zenetik (1990eko abenduaren 29ko EHAA). Dagoeneko gainditu dugu erakundea abiarazteko aldia, eta honi ezinbestean atxikitako saiakuntza-aldia ere bai. Lurralde deszentralizazioari ekin diogu Bilbon eta Donostian harrera zuzeneko bulegoak zabalduz, eta, honenbestez, jadanik hiru lurralde historikoetako hiriburuetan jardunean daude. Gero eta sarriago eskatzen dute herritarrek Arartekoaren bitartekaritza, egunetik egunera hobeto ezagutzen baitituzte erakundea nahiz bere lanaren emaitzak. Faktore horiek guztiak aintzat hartuta, komenigarria da araudia oraingo egoerara moldatzea.

Horregatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarrian jasotako manua betez, Arartekoak araudi hau onartzen du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzen.

## I. ATALBURUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. Atala.*– Helburua.

Araudi honen helburua Ararteko erakundearen antolabide eta jardunbidea ezartzea da, legeak eman dizkion zereginak bete ditzan.

*2. Atala.*– Egoitza.

1.– Ararteko erakundearen egoitza Gasteizen dago.

2.– Halaber, lurraldeko bi bulego daude Bilbon eta Donostian, batez ere herritarrei argibideak emateko eta horiek atenditzeko, baita kexak edo beste idazki batzuk aurkeztzen eta erregistratzen laguntzeko ere.

*3. Atala.*– Erakundearen anagrama.

1.– Ararteko erakundearen anagrama, araudi honen eranskineko irudian agertzen denez, honako hauek osatzen dute: Eusko Legebiltzarraren anagramak, azpialdean «A» hizkia sartuta, eta ARARTEKO hitzak.

2.– Arartekoaren idazkiak eta ziurtapenak egiaztatzeko, titularraren sinadura erabiliko da, edo honek esku emandakoarena, erakundearen anagrama duen zigiluarekin batera.

*4. Atala.*– Hizkuntzaren trataera.

1.– Ararteko erakundeak, zernahitarako, erreklamatzaileak aukeratutako hizkuntza ofizialetako batean edo bietan bideratuko du espediente bakoitza.

2.– Arartekoaren txostenak, urtekoak nahiz bereziak, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

3.– Besteren lanak, berriz, egileak erabilitako hizkuntzan argitaratuko dira.

Han transcurrido ocho años desde el inicio de la actividad del Ararteko y seis años desde la publicación del primer reglamento (BOPV de 29 de diciembre de 1990). Se ha superado ya la fase de puesta en marcha de la institución, que necesariamente lleva inherente una cierta dosis de experimentación. Ha comenzado una descentralización territorial con la apertura de oficinas de atención directa en Bilbao y en Donostia-San Sebastián, de modo que funcionan ya en las capitales de los tres territorios históricos. La demanda de intervención se ha incrementado, como consecuencia del mayor conocimiento de la institución y de los resultados de su labor. Todos estos factores aconsejan la adecuación del reglamento a la situación actual.

Por ello, en cumplimiento del mandato contenido en la disposición adicional segunda de la Ley 3/1985, de 27 de febrero, el Ararteko aprueba el presente reglamento y ordena su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*– Objeto.

El presente reglamento tiene como objeto establecer la organización y el funcionamiento de la institución del Ararteko para que ésta cumpla los fines que la ley le encomienda.

*Artículo 2.*– La sede.

1.– La sede de la institución del Ararteko se encuentra en Vitoria-Gasteiz.

2.– Asimismo, existen dos oficinas territoriales, en Bilbao y Donostia/San Sebastián, con la función principal de informar y atender a los ciudadanos, así como de facilitar la presentación y registro de quejas u otros escritos.

*Artículo 3.*– El anagrama de la institución.

1.– El anagrama de la institución del Ararteko, como queda establecido gráficamente en el anexo del presente reglamento, está compuesto por el anagrama del Parlamento Vasco, al que se incorpora la letra A en la parte inferior, y por la palabra Ararteko.

2.– La autenticación de los escritos del Ararteko, así como de las certificaciones, se producirá por la firma del titular o de aquel a quien delegue, acompañada del sello con el anagrama de la institución.

*Artículo 4.*– Tratamiento lingüístico.

1.– La institución del Ararteko tramitará, a todos los efectos, cada expediente de queja en la lengua o lenguas oficiales que elija la persona reclamante.

2.– Los informes del Ararteko, los anuales y los extraordinarios, serán publicados en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– La publicación de obras de terceros se realizará en la lengua utilizada por el autor.

II. ATALBURUA
ANTOLAKETA

LEHEN SAILA
ORGANO NAGUSIEZ

*5. Atala.*– Organo nagusiak.

1.– Arartekoaren organo nagusiak dira:

a) Arartekoa.
b) Ondokoa.
c) Idazkari Nagusia.
d) Administrazio eta Langileburua.
e) Koordinazio Batzordea.

2.– Organo nagusiek Arartekoa sortu eta arautu zuen 3/1985 Legeak -otsailaren 27koa- eta araudi honek emandako zereginak beteko dituzte.

3.– Araudi hau ezartzean, Ararteko erakundearen kide bakarreko organoak aipatzen direnean, organo bakoitza betetzen duen pertsonaren generoa adieraziko da beti.

BIGARREN SAILA
ARARTEKOAZ

*6. Atala.*– Izendapena, kargu-uztea eta erantzukizuna.

1.– Arartekoaren izendapena eta kargu-uztea otsailaren 27ko 3/1985 Legean ezarritako moduan egingo da.

2.– Arartekoa bere lanaren erantzule izango da Euskko Legebiltzarraren aurrean.

*7. Atala.*– Arartekoaren onurabideak, bermeak eta forupekotasuna.

1.– Bai Euskal Herriko Autonomi Estatutuak, 26.6 artikuluan, bai azaroaren 6ko 36/1985 Legeak —Estatuko Defensor del Pueblo-ren eta autonomia erkidegoetako antzeko irudien arteko harremanak arautzen dituenak— bere lehen artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoa ezin izango dute ukitu, ez ematen dituen iritziengatik, ez bere karguari atxikitako betebeharrak betetzean edo aginpidea erabiltzean burutzen dituen ekintzengatik ere.

2.– Arartekoa erakundea sortu eta arautu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legeak dioenari kalterik egin gabe, eta, orobat, lehen aipatu 36/1985 Legearen lehen artikuluarekin bat etorriz, Arartekoari ezarriko zaizkio Estatuko Defensor del Pueblo-ren 3/1981 Lege Organikoan, apirilaren 6koan, xedatutako berme hauek:

a) Ondoko artikuluetan agindutakoak: 16.ean (gutunak eta beste jakinarazpen batzuk zabaldu ezina), 19.ean (herri agintarien lankidetza), 24.ean (ikerketalana oztopatzean edo laguntzarik eman nahi ez denean hartu beharreko neurriak) eta 26.ean (erantzukizunekintza gauzatzea).

b) 25. artikuluan jasotakoa (lege-hausteak eta irregulartasunak salatzea); jakintzat ematen da, halakoetan,

CAPÍTULO II
ORGANIZACIÓN

SECCIÓN PRIMERA
DE LOS ÓRGANOS SUPERIORES

*Artículo 5.*– Órganos superiores.

1.– Son órganos superiores del Arartekо.

a) El Arartekо.
b) El Adjunto.
c) El Secretario General.
d) El Jefe de Personal y Administración.
e) La Junta de Coordinación.

2.– Los órganos superiores ejercen las funciones que la Ley 3/1985, de 27 de febrero, por la que se crea y regula la institución del Arartekо, y el presente reglamento les atribuyen.

3.– En la aplicación de este reglamento, los órganos unipersonales de la institución del Arartekо serán mencionados siempre con la determinación de género que corresponda a la persona concreta que los ocupe.

SECCIÓN SEGUNDA
DEL ARARTEKO

*Artículo 6.*– Nombramiento, cese y responsabilidad.

1.– El nombramiento y cese del Arartekо se producirá en la forma prevista en la Ley 3/1985 de 27 de febrero.

2.– El Arartekо responde de su gestión ante el Parlamento Vasco.

*Artículo 7.*– Prerrogativas, garantías y aforamiento del Arartekо

1.– De conformidad con lo previsto en el artículo 26.6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo 1 de la Ley 36/1985, de 6 de noviembre, por la que se regulan las relaciones entre la institución del Defensor del Pueblo y las figuras similares en las distintas comunidades autónomas, el Arartekо será inviolable por las opiniones que formule y por los actos que realice en el ejercicio de las funciones y competencias propias de su cargo.

2.– Sin perjuicio de lo previsto en la Ley 3/1985, de 27 de febrero, por la que se crea la institución del Arartekо, y de conformidad con lo previsto, asimismo, en el artículo 1 de la Ley 36/1985, citada, serán de aplicación al Arartekо las siguientes garantías establecidas en la Ley Orgánica 3/1981, de 6 de abril, del Defensor del Pueblo:

a) Las preceptuadas en los artículos 16 (inviolabilidad de correspondencia y otras comunicaciones), 19 (cooperación de los poderes públicos), 24 (medidas en caso de entorpecimiento o resistencia a la actuación investigadora) y 26 (ejercicio de la acción de responsabilidad).

b) La contenida en el artículo 25 (denuncia de infracciones e irregularidades), entendiéndose que, en

Arartekoak Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Herri Salataritzarekin izango duela harremana.

Arestian aipaturiko kasuak autonomiez kanpoko herri-administrazioen ekintzei dagozkienean, Arartekoak Defensor del Pueblo-ri jakinaraziko dizkio ikusi dituen lege-hauste eta irregulartasunak. Defensor del Pueblo-k, informazio hori aintzat emanez, esku hartu ahal izango du bere aginpidea erabiliz, eta Arartekoari jakinarazi ahal izango dio zein gestio egin dituen Estatuko Herri Salatari Nagusiaren aurrean eta zein ondorio izan dituzten.

c) Salbuespen- edo herstura-egoerak gertatuta ere, ez da Arartekoaren jarduna etengo, ezta pertsona kaltetuek erakundera heltzeko duten eskubidea ere, betiere Konstituzioaren 55 eta 116. artikuluetan eta hauen garapen diren lege organikoetan agindutakoa betez.

3.– Atal honetako 1. puntuan ezarritako oinarriaren arabera, Arartekoa ezingo dute atxilotu, ez atxiki ere, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurraldean burututako delituengatik, delitu nabarmena egin ezean, eta, nolanahi ere, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak erabaki behar du hari errua leporatu, kartzelaratu, auziperatu eta epaitu ala ez. Euskal Herriaren lurralde-esparrutik kanpo, Auzitegi Gorenaren Zigor arloko Sailari eskatu ahal izango zaio, era berean, zigor-erantzukizuna.

*8. Atala.*– Eginkizunak.

Legeek eman dizkioten eskumenak erabiltzeko, Arartekoak honako eginkizun hauek bete behar ditu:

a) Erakundearen ordezkari izatea.

b) Erakundeak herritar kexagileekin dituen harreman zuzenak mantentzea.

c) Herri agintariekin, Administrazioko organoekin eta Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo Estatuz gaindiko antzeko organoen titularrekin dituen harreman zuzenak mantentzea.

d) Eusko Legebiltzarrari legeak agindutako urteko txostenak eta txosten bereziak aurkeztea.

e) Ondokoa izendatzea eta hari kargua utziaraztea, Eusko Legebiltzarrak bere onespena emandakoan, legeak agindu bezala.

f) Erakundeko langileei dagokienez:

1.– Langileen zerrenda proposatzea, aurrekontu-ahalbideen arabera.

2.– Idazkari Nagusia nahiz Administrazio eta Langileburua izendatzea eta hauei kargua utziaraztea.

3.– Aholkulariak eta konfiantzako langileak izendatzea eta hauei kargua utziaraztea.

4.– Eusko Legebiltzarrari proposatzea zein baldintza eta eskakizun txertatu behar diren Arartekoaren zerbitzurako esleitu diren plantilako postuetan.

tales casos, la relación delArarteko será con la Fiscalía del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Cuando los supuestos anteriormente previstos hagan referencia a actividades de administraciones públicas no autonómicas, el Ararteko notificará al Defensor del Pueblo las infracciones e irregularidades que haya observado. El Defensor del Pueblo, atendiendo dicha información, podrá intervenir en uso de sus facultades e informar al Ararteko de sus gestiones ante el Fiscal General del Estado y del resultado de las mismas.

c) La declaración de los estados de excepción o de sitio no interrumpirá las actividades del Ararteko ni el derecho de las personas afectadas a acceder a él, siempre dentro del respeto a lo preceptuado en los artículos 55 y 116 de la Constitución y en las leyes orgánicas que los desarrollan.

3.– Con el fundamento previsto en el apartado 1, durante su mandato, por los actos delictivos cometidos en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Ararteko no podrá ser detenido ni retenido sino en caso de flagrante delito, correspondiendo decidir, en todo caso, sobre su inculpación, prisión, procesamiento y juicio al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Fuera del ámbito territorial del País Vasco, la responsabilidad penal será exigible, en los mismos términos, ante la Sala de lo Penal del Tribunal Supremo.

*Artículo 8.*– Funciones.

Para el desarrollo de las competencias que le son asignadas por las leyes, corresponde al Ararteko el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Representar a la institución.

b) Mantener las relaciones directas de la institución con los ciudadanos reclamantes.

c) Mantener las relaciones directas con los poderes públicos, los órganos de la Administración y los titulares de los órganos de análoga naturaleza de ámbito autonómico, estatal o supraestatal.

d) Presentar al Parlamento Vasco los informes anuales y los extraordinarios que prevé la ley.

e) Nombrar y cesar al Adjunto, una vez otorgada por el Parlamento Vasco la previa conformidad prevista en la ley.

f) Respecto al personal de la institución:

1.– Proponer la plantilla de personal, en el marco de las disponibilidades presupuestarias.

2.– Nombrar y cesar al Secretario General y al Jefe de Personal y Administración.

3.– Nombrar y cesar a los asesores y al personal de confianza.

4.– Proponer al Parlamento Vasco las condiciones y requisitos que han de incorporarse a las plazas de la plantilla asignadas al servicio de la institución.

5.– Arartekoari atxikita dauden Eusko Legebiltzarren langileei destinoa ematea, eta haien funtzionario egoerarekin lotutako gainerako egintza guztiak burutzea.

6.– Disziplina ezartzeko ahalmena erabiltzea.

g) Koordinazio Batzordearen bilerak iragartzea, aztertuko diren gaien zerrenda egitea eta sor daitezkeen eztabaidak zuzentzea.

h) Arartekoaren organo eta zerbitzuen funtzionamenduaren zuzendari nagusi izatea, eta zerbitzu hauek hobeto antolatzeko barne-aginduak ematea.

i) Egindako kexen eta ofizioz hasitako jardueren tramitazioa, egiaztapena eta ikerketa zuzentzea.

j) Kexak onartu ala ez erabakitzea, baita ikerketen azken ebazpena zein izango den ere.

k) Ofiziozko jardueren eta egingo diren txosten berezien inguruan erabakiak hartzea; gaiaren, espezialitatearen edo beste gertakari batzuen arabera, kasu bakoitzean langile egokien gain utzi ahal izango du lan horiek burutzeko ardura.

l) Erakundearen lana nolakoa den ezagutaraztea, bai bere ikerketak eta txostenak ere. Zeregin hau betetzeko, zuzen-zuzenean Arartekoaren menpe dagoen Komunikazio Kabinetearen laguntza izango du.

ll) Urtero Eusko Legebiltzarrari Arartekoaren aurrekontuaren aurreproiektua proposatzea, eta urteko aurrekontuaren kitapena aurkeztea.

m) Aurrekontua gauzatzeko bidea erakustea, aurrekontu alorrean ezarri behar den legeriari jarraiki.

n) Kontratazio-organoaren eskumenak erabiltzea.

ñ) Gastuak baimendu eta erabakitzea, bai ordainketak agintzea ere, baldin eta, araudi honetan ezarritakoaren arabera, beste organoren bati espreski horretarako esku eman ez bazaio.

o) Beste organoren bati berariaz eman ez zaion beste edozein eginkizun.

HIRUGARREN SAILA
ONDOKOAZ

*9. Atala.*– Izendapena, kargu-uztea eta erantzukizuna.

1.– Arartekoak dauka Ondokoa izendatu eta hari kargua utziarazteko ardura, behin Eusko Legebiltzarrak baimena eman eta gero, legeak dioenaren arabera.

2.– Aurreko puntuan esandakoa bete dadin, Arartekoak kasu bakoitzean proposamena luzatu beharko dio Eusko Legebiltzarburuari.

3.– Ondokoa Eusko Legebiltzarburuaren eta Arartekoaren aurrean jabetuko da bere karguaz, eta bere egitekoak zuzen beteko dituela zin egin edo hitz emango du.

5.– Asignar destino al personal del Parlamento Vasco adscrito alArarteko, y realizar los demás actos relativos a su situación funcionarial.

6.– Ejercer la potestad disciplinaria.

g) Convocar y fijar el orden del día de las reuniones de la Junta de Coordinación y dirigir sus deliberaciones.

h) Ejercer la superior dirección del funcionamiento de los órganos y servicios del Ararteko, así como dictar instrucciones de orden interno para la mejor ordenación de los servicios.

i) Dirigir la tramitación, comprobación e investigación de las quejas formuladas y de las actuaciones que se inicien de oficio.

j) Decidir sobre la admisión o inadmisión a trámite de las quejas y sobre la resolución última de las investigaciones.

k) Decidir sobre las actuaciones de oficio y sobre los informes extraordinarios a realizar, pudiendo encomendar en cada caso la ejecución de los mismos al personal adecuado, en función de la materia, de la especialidad o de otras circunstancias que concurran.

l) Divulgar la naturaleza del trabajo de la institución, sus investigaciones e informes. Para desarrollar esta función estará auxiliado por el Gabinete de Comunicación, que depende directamente del Ararteko.

ll) Proponer anualmente al Parlamento Vasco el anteproyecto de presupuesto del Ararteko y presentar la liquidación del presupuesto anual.

m) Fijar las directrices para la ejecución de su presupuesto, conforme a la legislación presupuestaria aplicable.

n) Ejercer las facultades de órgano de contratación.

ñ) Autorizar y disponer los gastos, así como ordenar los pagos, en los casos en los que no se haya delegado expresamente en otros órganos conforme a lo dispuesto en el presente reglamento.

o) Cualesquiera otras que no vengan expresamente atribuidas a otro órgano.

SECCIÓN TERCERA
DEL ADJUNTO

*Artículo 9.*– Nombramiento, cese y responsabilidad.

1.– El nombramiento y cese del Adjunto corresponde al Ararteko, previa conformidad del Parlamento Vasco, de acuerdo con lo establecido en la ley.

2.– Al efecto previsto en el número anterior, el Ararteko deberá hacer la propuesta en cada caso al Presidente del Parlamento Vasco.

3.– El Adjunto tomará posesión de su cargo ante el Presidente del Parlamento Vasco y el Ararteko, prestando juramento o promesa de fiel desempeño de sus funciones.

4.– Ondokoa zuzenean bere lanaren erantzule izango da Arartekoaren aurrean.

*10. Atala.*– Ondokoaren onurabideak, bermeak eta forupekotasuna.

Bai Euskal Herriko Autonomi Estatutuak, 26.6 artikuluan, bai azaroaren 6ko 36/1985 Legeak -Estatuko Defensor del Pueblo-ren eta autonomia erkidegoetako horren antzeko irudien arteko harremanak arautzen dituena- bere lehen artikuluan ezarritakoaren arabera, Ondokoak araudi honen 7. atalean Arartekoarentzat aipatutako onurabide, berme eta forupekotasun berberak izango ditu.

*11. Atala.*– Eginkizunak.

1.– Legearen aginduz, Ondokoaren eginbeharrak dira:

a) Erakundearen lanean Arartekoari laguntzea.

b) Arartekoaren egitekoak burutzea, hark postua hutsik uztean, gorputz-ezintasuna duenean edo denboraldi baterako kanpoan denean.

2.– Araudi honetan emandako eskuordetzez, Ondokoari dagokio:

a) Erakundearen zerbitzuen zuzendari nagusi izatea, Arartekoak espreski hala agintzen duenean.

b) Hiru lurralde historikoetan dauden harrera zuzeneko bulegoen zuzendari nagusi izatea.

c) Eusko Legebiltzarrarekiko harremanetan Arartekoari laguntzea.

d) Herri administrazioen funtzionamenduari buruzko ikerketa-proposamenak egitea, erabakitzen diren jarduerak burutzeko beharrezko ikustaldiak koordinatzea eta horien emaitzak jakinaraztea.

e) Herri administrazioekin harremanetan jartzea, pertsonalki zein idatziz, erakunde barruan ezartzen den banaketaren arabera, aurkezturiko kexak eta ofizioz hasten diren jarduerak bideratu ahal izateko beharrezko informazioa eskatzearren.

f) Espedienteen itxiera formalizatzea.

g) Ziurtapenak egitea.

3.– Legeari eta araudi honi jarraituz Arartekoak ematen dizkion egitekoak bere gain hartzea.

LAUGARREN SAILA
IDAZKARITZA NAGUSIAZ

*12. Atala.*– Definizioa.

Araubide eta aholkularitza tekniko alorretan Arartekoari laguntzen dion organoa da Idazkaritza Nagusia.

*13. Atala.*– Idazkari Nagusiaren izendapena, karguuztea eta erantzukizuna.

1.– Arartekoak askatasun osoz izendatuko du Idazkari Nagusia eta utziaraziko dio kargua. Edonola ere, honek kargua utzi beharko du erakundearen legearen

4.– El Adjunto es directamente responsable de su gestión ante el Arartekо.

*Artículo 10.*– Prerrogativas, garantías y aforamiento del Adjunto.

Conforme a lo previsto en el artículo 26.6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y en el artículo 1 de la Ley 36/1985, de 6 de noviembre, por la que se regulan las relaciones entre la institución del Defensor del Pueblo y la figuras similares en las distintas comunidades autónomas, el Adjunto gozará del régimen de prerrogativas, garantías y aforamiento referido para el Arartekо en el artículo 7 de este reglamento.

*Artículo 11.*– Funciones.

1.– Por mandato de la ley corresponde al Adjunto:

a) Auxiliar al Arartekо en el trabajo de la institución.

b) Ejercer las funciones del Arartekо en los casos de vacante, imposibilidad física o ausencia temporal.

2.– Por delegación, otorgada en este reglamento, corresponde al Adjunto:

a) Ejercer la superior dirección de los servicios de la institución, cuando expresamente lo determine el Arartekо.

b) Ejercer la superior dirección de las oficinas de atención directa de los tres territorios históricos.

c) Colaborar con el Arartekо en las relaciones con el Parlamento Vasco.

d) Elaborar propuestas de investigación sobre el funcionamiento de las administraciones públicas, coordinar las visitas necesarias para ejecutar las actuaciones que se decidan y presentar los resultados correspondientes.

e) Dirigirse, personalmente o por escrito, a las distintas administraciones públicas, de acuerdo con la distribución interna que se establezca, con el fin de recabar la información necesaria para poder tramitar las quejas presentadas y las actuaciones que se inicien de oficio.

f) Formalizar el cierre de expedientes.

g) Expedir certificaciones.

3.– Asumirá las funciones que el Arartekо le encomiende conforme a la ley y el presente reglamento.

SECCIÓN CUARTA
DE LA SECRETARÍA GENERAL

*Artículo 12.*– Definición.

La Secretaría General es el órgano de asistencia al Arartekо en materia de régimen jurídico y asesoramiento técnico.

*Artículo 13.*– Nombramiento, cese y responsabilidad del Secretario General.

1.– El nombramiento y cese del Secretario General se realizará libremente por el Arartekо. Cesará en todo caso al cumplirse las previsiones del art. 40 de la ley

40. artikuluko aurrikuspenak betetzean. Hala izendapena nola kargu-uztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

2.– Idazkari Nagusia zuzenean bere lanaren erantzule izango da Arartekoaren aurrean.

*14. Atala.*– Idazkari Nagusiaren eginkizunak.

Idazkari Nagusiaren eginbeharrak dira, Arartekoaren gidaritzapean, honako hauek:

a) Idazkaritza Nagusiaren menpeko zerbitzuak zuzentzea: Lege Aholkularitza; Agiritegia, Azterlanak eta Liburutegia; Gizarte Harremanak; eta Harrera Zuzeneko Bulegoak.

b) Prozedurari buruzko proposamenak egitea.

c) Hala eskatzen zaionean, Koordinazio Batzordeari aholkulariak hautatzeko proposamenak egin eta aurkeztea, ondoren Arartekoak izenda ditzan.

d) Egindako kexen eta ofizioz hasitako jardueren tramitazioa, egiaztapena eta ikerketa bultzatu eta ikuskatzea, Arartekoari proposatuz, hala badagokio, kexak tramiterako onartu ala ez, eta bidezkoak iruditzen zaizkion edonolako ebazpenak. Zeregin hau betetzeko, egoki jotzen dituen jarduera eta komunikazioak burutuko ditu.

e) Eusko Legebiltzarrari aurkeztu behar zaion Urteko Txostena egin eta Arartekoari proposatzea.

f) Beharrezko denean, Arartekoak hartutako erabakiak dagozkien zerbitzuei jakinaraztea.

g) Kontratazio Mahaiaren buru izatea.

h) Diruzain den aldetik, ordainketak gauzatzea.

i) Bere lana betetzearekin zerikusirik duen beste edozein eginkizun, baldin eta berariaz beste organo bati eman ez bazaio.

j) Arartekoak ematen dizkion gainerako zereginak bere gain hartzea.

BOSTGARREN SAILA
LANGILE ETA ADMINISTRAZIO BURUZAGITZAZ

*15. Atala.*– Izaera.

Erakundearen barne-jaurbide, administrazio eta mantenimendu alorretan Arartekoari laguntza eta aholkuak emateko organoa da Langile eta Administrazio Buruzagitza.

*16. Atala.*– Administrazio eta Langileburuaren izendapena, kargu-uztea eta erantzukizuna.

1.– Arartekoak askatasun osoz izendatuko du Administrazio eta Langileburua eta utziaraziko dio kargua. Edonola ere, kargua utzi beharko du Arartekoaren Legearen 40. artikuluko aurrikuspenak betetzean.

2.– Administrazio eta Langileburua zuzenean bere lanaren erantzule izango da Arartekoaren aurrean.

*17. Atala.*– Administrazio eta Langileburuaren eginkizunak.

propia. Tanto el nombramiento como el cese serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– El Secretario General es directamente responsable de su gestión ante el Arartekо.

*Artículo 14.*– Funciones del Secretario General.

Corresponden al Secretario General, bajo la superior dirección del Arartekо, las siguientes funciones:

a) Dirigir los servicios dependientes de la Secretaría General: Asesoría Jurídica; Documentación, Estudios y Biblioteca; Relaciones Sociales; y Oficinas de Atención Directa.

b) Elaborar propuestas relativas al procedimiento.

c) Elaborar y presentar ante la Junta de Coordinación, cuando se le encomiende, las propuestas de selección de los asesores para su posterior designación por el Arartekо.

d) Impulsar y supervisar la tramitación, comprobación e investigación de las quejas formuladas y de las actuaciones que se inicien de oficio, proponiendo al Arartekо, en su caso, la admisión a trámite o rechazo de las mismas y las resoluciones de todo orden que entienda procedentes. Para desempeñar esta función llevará a cabo las actuaciones y comunicaciones que considere pertinentes.

e) Elaborar y proponer al Arartekо el Informe Anual que deba elevarse al Parlamento Vasco.

f) Transmitir las decisiones que tome el Arartekо, cuando así sea preciso, a sus respectivos servicios.

g) Presidir la Mesa de Contratación.

h) En función de tesorero, materializar los pagos.

i) Cualesquiera otras relativas al desarrollo de sus funciones que no vengan expresamente atribuidas a otro órgano.

j) Asumir las demás funciones que el Arartekо le encomiende.

SECCIÓN QUINTA
DE LA JEFATURA DE PERSONAL Y ADMINISTRACIÓN

*Artículo 15.*– Carácter.

La Jefatura de Personal y Administración es el órgano de asistencia y asesoramiento al Arartekо en materia de régimen interior, administración y mantenimiento de la institución.

*Artículo 16.*– Nombramiento, cese y responsabilidad del Jefe de Personal y Administración.

1.– El nombramiento y cese del Jefe de Personal y Administración se realizará libremente por el Arartekо. Cesará en todo caso al cumplirse las previsiones del art. 40 de la Ley del Arartekо.

2.– El Jefe de Personal y Administración es directamente responsable de su gestión ante el Arartekо.

*Artículo 17.*– Funciones del Jefe de Personal y Administración

Administrazio eta Langileburuaren eginbeharrak dira, Arartekoaren gidaritzapean, honako hauek:

a) Langileen erregimena ezartzeko gestioak egitea.

b) Erakundearen administrazioa, erregistroa, komunikazio-sistemak, mantenimendua, agirien artxibatzea eta zaintza zuzentzea.

c) Erakundearen ondasun-zerrenda egitea eta bertako materialak eta finantzak kontrolatzea.

d) Ararteko erakundearen egoitzak eta bitarteko materialak zaintzeaz arduratzea.

e) Zerbitzu-kutxan eta Arartekoak aurrez baimendutako kreditu- eta aurrezki- kutxetako kontuetan dagoen diru-kopurua fisikoki zaintzea eta kontrolatzea.

f) Ararteko erakundearen aurrekontuko ekonomia- eta finantza-gaiak kudeatu eta administratzea, baita bere kontularitza ere.

g) Aurrekontuaren aurreproiektua prestatu eta Koordinazio Batzordeari aurkeztea, bai haren kitapena ere.

h) Beharrezko denean, Arartekoak hartutako erabakiak dagozkien zerbitzuei jakinaraztea.

i) Barne-jaurbideari eta administrazioari buruzko beste edozein eginkizun, baldin eta espreski beste organo bati eman ez bazaio.

j) Arartekoak ematen dizkion gainerako zereginak bere gain hartzea.

SEIGARREN SAILA
ORDEZKAPEN-SISTEMA

*18. Atala.*– Ordezkapen-sistema.

Arartekoak berariaz bere ordezkoa izendatzen ez badu behintzat, eta 3/1985 Legearen 8. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, Ararteko erakundearen organo nagusietako titular batek postua hutsik uztean, kanpora joatean, gaixotzean edo gorputz-ezintasuna duenean, bere nagusirik hurrenenak beteko ditu haren eginkizunak egoerak irauten duen bitartean. Horrek ere postua hutsik utzi, kanpora joan, gaixotu edo gorputz-ezintasuna badu, aipatu eginkizunak bere menpeko organoek beteko dituzte, lehentasun-sistema honen arabera: Ondokoak, Idazkari Nagusiak eta Administrazio eta Langileburuak.

Aurreko erabakiarekin bat etorriz, ordezkapen-sistema honako hau izango da zehatz-mehatz:

a) Kanpora joatean, postua hutsik uztean, gaixotzean edo gorputz-ezintasuna duenean, Arartekoa honako organoek ordezkatuko dute eta lehentasun-sistema honen arabera: Ondokoak, Idazkari Nagusiak eta Administrazio eta Langileburuak.

b) Kanpora joatean, postua hutsik uztean, gaixotzean edo gorputz-ezintasuna duenean, Ondokoa honako organoek ordezkatuko dute eta lehentasun-sistema honen arabera: Arartekoak, Idazkari Nagusiak eta Administrazio eta Langileburuak.

c) Kanpora joatean, postua hutsik uztean, gaixotzean

Corresponden al Jefe de Personal y Administración, bajo la superior dirección del Ararteko, las siguientes funciones:

a) Gestionar la aplicación del régimen de personal.

b) Dirigir la administración, el registro, los sistemas de comunicación, el mantenimiento, el archivo y custodia de los documentos de la institución.

c) Realizar el inventario de los bienes de la institución y el control material y financiero del mismo.

d) Cuidar de la conservación de las dependencias y de los medios materiales de la institución del Ararteko.

e) Custodiar físicamente y controlar la tesorería de la caja de servicio y de las cuentas en las entidades de crédito y ahorro previamente autorizadas por el Ararteko.

f) Gestionar y administrar los asuntos económicos y financieros del presupuesto de la institución del Ararteko, así como su contabilidad.

g) Elaborar y presentar ante la Junta de Coordinación el anteproyecto de presupuesto, así como la liquidación del mismo.

h) Transmitir las decisiones que tome el Ararteko, cuando así sea preciso, a sus respectivos servicios.

i) Cualesquiera otras relativas al régimen interior y a la administración que no vengan expresamente atribuidas a otro órgano.

j) Asumir las demás funciones que el Ararteko le encomiende.

SECCIÓN SEXTA
RÉGIMEN DE SUPLENCIAS

*Artículo 18.*– Régimen de suplencias.

Salvo designación expresa de suplente por parte del Ararteko, y sin perjuicio de lo previsto en el artículo 8 de la Ley 3/1985, en los supuestos de vacante, ausencia, enfermedad o imposibilidad física de los titulares de los órganos superiores de la institución del Ararteko, las competencias atribuidas a los mismos serán ejercidas, mientras dure tal situación, por el superior jerárquico inmediato. En el supuesto de vacante, ausencia o enfermedad de éste, las competencias referidas serán ejercidas por los órganos de él dependientes conforme al siguiente sistema de prelación: Adjunto, Secretario General y Jefe de Personal y Administración.

De acuerdo con la precedente determinación, el régimen de suplencias se concreta de la siguiente forma:

a) En los casos de ausencia, vacante, enfermedad o imposibilidad física, el Ararteko será suplido por los órganos que a continuación se reseñan y conforme al siguiente sistema de prelación: El Adjunto, el Secretario General y el Jefe de Personal y Administración.

b) En los casos de ausencia, vacante, enfermedad o imposibilidad física, el Adjunto será suplido por los órganos que a continuación se reseñan y conforme al siguiente sistema de prelación: El Ararteko, el Secretario General y el Jefe de Personal y Administración.

c) En los casos de ausencia, vacante, enfermedad o

edo gorputz-ezintasuna duenean, Idazkari Nagusia honako organoek ordezkatuko dute eta lehentasun-sistema honen arabera: Arartekoak, Ondokoak eta Administrazio eta Langileburuak.

d) Kanpora joatean, postua hutsik uztean, gaixotzean edo gorputz-ezintasuna duenean, Administrazio eta Langileburua honako organoek ordezkatuko dute eta lehentasun-sistema honen arabera: Arartekoak, Ondokoak eta Idazkari Nagusiak.

ZAZPIGARREN SAILA
KOORDINAZIO BATZORDEAZ

*19. Atala.*– Izaera.

Arartekoak bere lana betetzeko eta erakundearen antolaketa, administrazio eta barne-jaurbiderako erabiltzen duen kontsulta- eta aholkularitza-organoa da Koordinazio Batzordea.

*20. Atala.*– Osaketa.

1.– Koordinazio Batzordeko partaide dira Arartekoa, Ondokoa, Idazkari Nagusia eta Administrazio eta Langileburua.

2.– Idazkari Nagusiak egingo du idazkari-lana.

3.– Jakinaren gainean egon daitezen, eta aurrez Arartekoak deitutakoan, Koordinazio Batzordearen bileretara joan ahal izango dira aholkulariak, eta baita hark bidezko deritzon beste edonor ere.

*21. Atala.*– Funtzionamendua.

1.– Koordinazio Batzordea gutxienez hilean behin bilduko da, eta Arartekoari bilera egitea komenigarria iruditzen zaion aldi guztietan.

2.– Arartekoak ezarriko ditu gai-zerrendan, edozein batzordekidek proposatuta, eztabaidatuko diren gaiak.

3.– Bileren edukia aktan jasoko da.

4.– Koordinazio Batzordeko partaideek isilean gordeko dute eztabaiden edukia.

*22. Atala.*– Eginkizunak.

1.– Koordinazio Batzordearen egitekoa gai hauen gainean aholku ematea da:

a) Langileei buruzkoak eta gai ekonomiko-finantzarioak.

b) Langileen zerrenda proposatzea eta Arartekoaren zerbitzuko aholkulariak eta konfiantzako langileak izendatzea eta hauei postuak utziaraztea.

c) Aurrekontuaren aurreproiektua egin, gauzatu eta kitatzearekin lotutakoak.

d) Eusko Legebiltzarrari aurkezten zaizkion txosten arrunta eta txosten bereziak.

e) Hala badagokio, Defensor del Pueblo-ri Konstituzio-kontrakotasuneko edo babes eskeko errekurtsoak jartzeko eskariak egitea.

f) Erakundearen eginkizuna ezagutarazi eta betetze-

imposibilidad física, el Secretario General será sustituido por los órganos que a continuación se reseñan y conforme al siguiente sistema de prelación: El Ararteko, el Adjunto y el Jefe de Personal y Administración.

d) En los casos de ausencia, vacante, enfermedad o imposibilidad física, el Jefe de Personal y Administración será sustituido por los órganos que a continuación se reseñan y conforme al siguiente sistema de prelación: El Ararteko, el Adjunto y el Secretario General.

SECCIÓN SÉPTIMA
DE LA JUNTA DE COORDINACIÓN

*Artículo 19.*– Carácter.

La Junta de Coordinación es el órgano de consulta y asesoramiento al Ararteko para el ejercicio de sus funciones y para la organización, administración y régimen interior de la institución.

*Artículo 20.*– Composición.

